BIDE HEZIKETA




HERNANIKO UDALA

TXOSTENA (2026)

Aitor Portillo

LEHEN HEZKUNTZA (2025-2026)

IKASLEEN KOPURUA




Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209

bideheziketa@hernani.eus

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (2025-2026)

IKASLEEN KOPURUA



Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209

bideheziketa@hernani.eus

LEHEN

HEZKUNTZA

≈

LANGILE IKASTOLA

LEHEN HEZKUNTZA

2025/2026 ikasturtea bukatzear dagoela eta, idatzi honekin batera ikastetxean aurten emandako Bide Heziketako ikastaroari buruzko zenbait ohar bidali nahi genizueke:

Orokorrean, azpiko taulan ikusten den bezala, ikastetxean Bide Heziketa ikastaroa egin duten ikasle kopurua honako hau izan da:

MAILA		IKASLE KOPURUA
1.	A	20.-
	B	20.-
	C	20.-
2.	A	22.-
	B	21.-
	C	23.-
3.	A	20.-
	B	17.-
	C	17.-
4.	A	17.-
	B	18.-
	C	18.-
	D	18.-
5.	A	23.-
	B	21.-
	C	19.-
6.	A	20.-
	B	19.-
	C	18.-
GUZTIRA		**371.-**

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

METODOLOGIA

Partaidetza ahalik eta handiena bultzatzen duten metodologia aktiboak erabiltzen saiatuko gara. Aukeratuko ditugun metodoen bidez parte hartzaileak aldez aurretik dituen ideien inguruan hausnartuko du eta prestakuntza areagotzeko aukera emango dioten perspektiba berriak esperimentatuko ditu, gero errealitatean aplikatzeko.

HELBURUAK

- Parte-hartzaileek suma dezatela noiz izan dezaketen mugikortasunarekin lotutako istripu bat izateko arriskua, beren burua babesteko zerbait egin ahal izateko, zentzumen eta kanpoko estimulu guztiak erabiliz.

- Parte-hartzaileek beren jokabideak estimuluen pertzepzioei instintiboki egoki ditzatela, indikazioei eta arauei kasu egin diezaietela eta horien arabera joka dezatela.

- Parte-hartzaileek jabe daitezela arretak duen garrantziaz, ohituren garrantziaz, arriskuaren pertzepzioaz, aparteko presio posibleaz, bideetako informazioa ezagutzearen garrantziaz eta ustekabeko egoeren aurrean erreakzionatzeaz. Hori guztia kale edo errepide testuinguruan.

EDUKIAK

1.zikloa

Trafikoarekin lotutako soinuak erlazionatzeko jokoa, jokabide egoki eta arriskutsuen azterketa, autoan gerrikoa eta non kokatzearen garrantzia, errepide eta kaleetako elementuen azterketa (zebra bidea, semaforoa, seinaleak), ibilbidea oinez erdigunean barrena.

2. zikloa

Bide publikoa ibilgailuekin partekatzeko beharra, eta oinez ibiltzen direnean beren burua babesteko estrategiak garatzeko beharra, Segurtasun pasiboa kontzeptua identifikatzea, seinaleak landu, auto kasua, jokoak, simulazioak, elkarrizketa gidatuak, eskolako bidea, garraio publikoaren inguruko ezagutzak eta jarrerak (trena eta autobusa).

3. zikloa

Gidari gisa bete beharreko arauen inguruko galde-sorta, enpatia, eraginberatasunari buruzko ekintzak, talde-lana, ingurunearen ezagutza, kasuen azterketa, simulazioa pista batean eta errepidera garantia minimo batzuekin ateratzeko zirkuitua, non ikasleek bizikleta menperatzen duten ala ez neurtzen da.

SAIOAREN HELBURUA:

OINEZKO, BIDAIARI ETA GIDARI DIREN NEURRIAN, HAUR , GAZTE ETA HELDUEN ISTRIPUAK GUTXITZEA.

PARTE HARTU DUTEN IKASTOLA ETA IKASTETXEAK

2025 - 2026 ikasturtean, Bide Heziketako programan parte hartu duten ikastola eta ikastetxeen zerrenda honako hau izan da:

LEHEN HEZKUNTZA

.- Langile Ikastetxea.
.- Aratz Ikastola.
.- Elizatxo Ikastetxea.
.- Urumea ikastetxea.
.- Txirrita ikastetxea.

HIZKUNTZA

2025-2026 ikasturtean ikastola eta ikastetxeko eskakizunari jarraituz euskaraz eman dugunez , gure asmoa hurrengo urterako (2026-2027) euskaraz ematea da.

BIDE HEZIKETAKO IKASLE KOPURUA

2025 -2026 ikasturtean, Bide Heziketako programan parte hartu duten ikasleen kopurua honako hau izan da:

LEHEN HEZKUNTZA

ZIKLOA	MAILA	IKASLEAK
1.	1.go 2.	273.-
2.	3. 4.	299.-
3.	5. 6.	314.-

GUZTIRA	886- IKASLE

2025-2026 BIDE- HEZIKETAREN SAIOAK ETA IRAUPENA

LEHEN HEZKUNTZA

ZIKLOAK	MAILA	1. SAIOA	2. SAIOA	PRAKTIKOA
1.	1.	60 MIN	----- -----	60 MIN
	2.	60 MIN	60 MIN	60 MIN
2.	3.	60 MIN	60 MIN	120 MIN
	4.	60 MIN	60 MIN	120MIN
3.	5.	60 MIN	60 MIN	120 MIN
	6.	60 MIN	60 MIN	120 MIN

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA HERNANI

2025-2026

IKASTURTEA

LANGILE IKASTOLA

ORDUA	URRIAK 20	URRIAK 21	URRIAK 22	URRIAK 23	URRIAK 24
09:00 - 10:00	L. H. 4- B	L. H. 4- D	L. H. 3.- A	L. H. 3.- A	L. H. 4- A
10:00 - 11:00			L. H. 3.- B	L. H. 3.- B	L. H. 4- D
11:30 - 12:30			L. H. 3.- C	L. H. 3- C	L. H. 4- C

ORDUA	URRIAK 27	URRIAK 28	URRIAK 29	URRIAK 30	URRIAK 31
09:00 - 10:00	L. H. 4.- A	PRAKTIKOA 3. A	PRAKTIKOA 3. B	PRAKTIKOA 3. C 09:00 - 11:15	PRAKTIKOA 4. D 09:00 - 11:15
10:00 - 11:00	L. H. 4.- B				
11:30 - 12:30	L. H. 4.- C				

ORDUA	AZAROAK 3	AZAROAK 4	AZAROAK 5	AZAROAK 6	AZAROAK 7
09:00 - 10:00	PRAKTIKOA 4. A 09:00 - 11:15	PRAKTIKOA 4. B 09:00 - 11:15	PRAKTIKOA 4. C 09:00 - 11:15	L. H. 5- A	L. H. 5.- A
10:00 - 11:00				L. H. 5- B	L. H. 5.- B
11:30 - 12:30				L. H. 5- C	L. H. 5- C

ORDUA	AZAROAK 10	AZAROAK 11	AZAROAK 12	AZAROAK 13	AZAROAK 14
09:00 - 10:00	PRAKTIKOA 5. B 09:15-10:45 5. C 10:45-12:15	PRAKTIKOA 5. A 09:15-10:45	L. H. 6.- A	L. H. 6.- A	PRAKTIKOA 6. A 09:15-10:45 6. B 10:45-12:15
10:00 - 11:00			L. H. 6.- B	L. H. 6.- B	
11:30 - 12:30			L. H. 6.- C	L. H. 6.- C	

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

ORDUA	AZAROAK 17	AZAROAK 18	AZAROAK 19	AZAROAK 20	AZAROAK 21
09:00 - 10:00		PRAKTIKOA			
10:00 - 11:00		6. C			
11:30 - 12:30		09:15-10:45			

ORDUA	AZAROAK 24	AZAROAK 25	AZAROAK 26	AZAROAK 27	AZAROAK 28
09:15-10:45					
10:45-12:10					

LANGILE IKASTOLA

(LEHEN ZIKLOA)

ORDUA	MAIATZAK 11	MAIATZAK 12	MAIATZAK 13	MAIATZAK 14	MAIATZAK 15
09:00 - 10:00					L. H. 1-A
10:00 - 11:00					L. H. 1- B
11:15 - 12:15					L. H. 1- C

ORDUA	MAIATZAK 18	MAIATZAK 19	MAIATZAK 20	MAIATZAK 21	MAIATZAK 22
09:00 - 10:00	Praktika 1- A		L. H. 2- A	L. H. 2- A	Praktika 2. A
10:00 - 11:00	Praktika 1. B		L. H. 2- B	L. H. 2- B	Praktika 2. B
11:15 - 12:15	Praktika 1. C		L. H. 2- C	L. H. 2- C	Praktika 2. C

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*



Hernaniko Udala



2025-2026

IKASTURTEA

LANGILE IKASTOLA

ORDUA	URRIAK 20	URRIAK 21	URRIAK 22	URRIAK 23	URRIAK 24
09:00 - 10:00	L. H.4-B 18-16	L. H.4-D 18-16	L. H. 3-A 20-18	L. H.3-A 20-18	L. H.4-C 18-16
10:00 - 11:00			L. H. 3-B 17-17	L. H.3-B 17-17	L.H.4-D 18-18
11:30 - 12:30			L. H. 3-C 17-17	L. H.3-C 17-17	L. H.4-A 17-16

ORDUA	URRIAK 27	URRIAK 28	URRIAK 29	URRIAK 30	URRIAK 31
09:00 - 10:00	L. H. 4-A 17-17	PRAKTIKOA 3. C 17-17	PRAKTIKOA 3. B 17-16	PRAKTIKOA 3. A 20-18	PRAKTIKOA 4. D 18-17
10:00 - 11:00	L. H. 4-B 18-18				
11:30 - 12:30	L. H. 4-C 18-18				

ORDUA	AZAROAK 3	AZAROAK 4	AZAROAK 5	AZAROAK 6	AZAROAK 7
09:00 - 10:00	PRAKTIKOA 4. A 18-18	PRAKTIKOA 4. C 17-17	PRAKTIKOA 4. B 18-16	L. H. 5-B 21-19	L. H. 5-A 23-23
10:00 - 11:00				L. H. 5-C 19-19	L. H. 5-C 19-19
11:30 - 12:30				L. H. 5-A 23-23	L. H. 5-B 21-20

ORDUA	AZAROAK 10	AZAROAK 11	AZAROAK 12	AZAROAK 13	AZAROAK 14
09:00 - 10:00	PRAKTIKOA 5. B 5. A	PRAKTIKOA 5. C 19-18	L. H. 6-C 18-18	L. H.6-A 20-20	PRAKTIKOA 6. A 20-19 6. B 19-19
10:00 - 11:00			L. H. 6-B 19-19	L. H.6-B 19-19	
11:30 - 12:30			L. H. 6-A 20-18	L. H.6-C 18-18	

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

ORDUA	AZAROAK 17	AZAROAK 18	AZAROAK 19	AZAROAK 20	AZAROAK 21
09:00 - 10:00		PRAKTIKOA			
10:00 - 11:00		6. C 18-17			
11:30 - 12:30		09:15-10:45			

ORDUA	AZAROAK 24	AZAROAK 25	AZAROAK 26	AZAROAK 27	AZAROAK 28
09:15-10:45					
10:45-12:10					

LANGILE IKASTOLA

(LEHEN ZIKLOA)

ORDUA	MAIATZAK 11	MAIATZAK 12	MAIATZAK 13	MAIATZAK 14	MAIATZAK 15
09:00 - 10:00					L. H. 1-A 20-19
10:00 - 11:00					L. H. 1-B 20-20
11:15 - 12:15					L. H. 1-C 20-19

ORDUA	MAIATZAK 18	MAIATZAK 19	MAIATZAK 20	MAIATZAK 21	MAIATZAK 22
09:00 - 10:00	Prak 1- C 20-19		L. H. 2-B 21-21	L. H. 2-C 23-23	Prak 2. A
10:00 - 11:00	Prak 1. B 20-20		L. H. 2-A 22-22	L. H. 2-A 22-22	Prak 2. B
11:15 - 12:15	Prak 1. A 20-17		L. H. 2-C 23-23	L. H. 2-B 21-21	Prak 2. C

2025-2026

IKASTURTEA

ARATZ IKASTOLA

ORDUA	OTSAILAK 9	OTSAILAK 10	OTSAILAK 11	OTSAILAK 12	OTSAILAK 13
09:00 -10:00	L. H. 4. A	Amaiaren ikasleekin Bixita udaltzaingora	L. H. 3. A	PRAKTIKA 3. A	
10:00 -11:00	L. H. 3. A		L. H. 4. A		
11:30 -12:30					

ORDUA	OTSAILAK 16	OTSAILAK 17	OTSAILAK 18	OTSAILAK 19	OTSAILAK 20
09:00 -10:00			L. H. 5. A	L. H. 5. A	L. H. 1. A
10:00 –11:00			L. H. 6. A		L. H. 2. A
11:30 -12:30			L. H. 2. A	L. H. 6. A	

ORDUA	OTSAILAK 23	OTSAILAK 24	OTSAILAK 25	OTSAILAK 26	OTSAILAK 27
09:00 -10:00	PRAKTIKA L. H. 5. A L. H. 6. A	Praktika 2. A			PRAKTIKA 4. A
10:00 –11:00		L. H. 1. A			
11:30 -12:30					

ORDUA	MARTXOAK 2	MARTXOAK 3	MARTXOAK 4	MARTXOAK 5	MARTXOAK 6
09:00 -10:00					
10:00 –11:00					
11:30 -12:30					

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

2025-2026

IKASTURTEA

ARATZ IKASTOLA

ORDUA	OTSAILAK 9	OTSAILAK 10	OTSAILAK 11	OTSAILAK 12	OTSAILAK 13
09:00 -10:00	L. H.4-A 23-23		L. H. 3-A 24-24	PRAKTIKA	
10:00 -11:00	L. H.3-A 24-24		L. H. 4-A 23-22	3. A	
11:30 -12:30				24-24	

ORDUA	OTSAILAK 16	OTSAILAK 17	OTSAILAK 18	OTSAILAK 19	OTSAILAK 20
09:00 -10:00			L. H. 5-A 23-20	L. H.5-A 23-23	L. H. 1-A 18-18
10:00 –11:00			L. H. 2-A 24-23		L. H. 2-A 24-22
11:30 -12:30			L. H. 6-A 24-21	L. H.6-A 24-22	

ORDUA	OTSAILAK 23	OTSAILAK 24	OTSAILAK 25	OTSAILAK 26	OTSAILAK 27
09:00 -10:00	PRAKTIKA	Prak2-A24-23			PRAKTIKA
10:00 –11:00	L. H. 5-A 23-23	L. H.-A 18-17			4. A
11:30 -12:30	L. H. 6-A 24-24				23-22

ORDUA	MARTXOAK 2	MARTXOAK 3	MARTXOAK 4	MARTXOAK 5	MARTXOAK 6
09:00 -10:00					
10:00 –11:00					
11:30 -12:30					

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

2025-2026

ELIZATXO IKASTOLA

ORDUA	APIRILAK 13	APIRILAK 14	APIRILAK 15	APIRILAK 16	APIRILAK 17
09:00 - 10:00				L. H. 6- A	
10:00 - 11:00	L. H. 5- A	L. H. 5- A	L. H. 6- B	L. H. 6- B	
11:30 - 12:30	L. H. 5- B	L. H. 5- B	L. H. 6- A		

ORDUA	APIRILAK 20	APIRILAK 21	APIRILAK 22	APIRILAK 23	APIRILAK 24
09:00 - 10:00		PRAKTIKA	---------	---------	PRAKTIKA
10:00 - 11:00		5- A	09:30 L. H. 1- A	09:30 Prak1.- B	6- B
11:30 - 12:30		5- B	11:00 L. H. 1- B	11:00 Prak1.- A	6- A

ORDUA	APIRILAK 27	APIRILAK 28	APIRILAK 29	APIRILAK 30	MAIATZAK 1
09:00 - 10:00			L. H. 4- A	L. H. 4- A	
10:00 - 11:00	L. H.3- B	L. H. 3- A	L. H. 4- B	L. H. 4- B	
11:30 - 12:30	L. H. 3- A	L. H. 3- B			

ORDUA	MAIATZAK 4	MAIATZAK 5	MAIATZAK 6	MAIATZAK 7	MAIATZAK 8
09:00 - 10:00					
10:00 - 11:00	09:30L. H. 2- B	09:30L. H. 2- A	PRAK 2-A		
11:30 - 12:30	11:00 L.H 2- A	11:00 L.H 2- A	PRAK 2-B		

ORDUA	MAIATZAK 11	MAIATZAK 12	MAIATZAK 13	MAIATZAK 19	MAIATZAK 15
09:00 - 10:00	PRAKTIKA	PRAKTIKA	PRAKTIKA	PRAKTIKA	
10:00 - 11:00	3- A	3- B	4- A	4- B	
11:30 - 12:30					

LH 1, LH 2 ETA LH 3 09:30-10:30 ETA 11:00-12:00 (BERAIEN JOLAS GARAIAREKIN KOADRATZEKO)

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

2025-2026

ELIZATXO IKASTOLA

ORDUA	APIRILAK 13	APIRILAK 14	APIRILAK 15	APIRILAK 16	APIRILAK 17
09:00 - 10:00				L. H. 6-A 16-15	
10:00 - 11:00	L. H. 5-A 19-18	L. H. 5-A 19-18	L. H. 6-B 17-17	L. H. 6-B 17-17	
11:30 - 12:30	L. H. 5-B 20-20	L. H. 5-B 20-20	L. H. 6-A 16-15		

ORDUA	APIRILAK 20	APIRILAK 21	APIRILAK 22	APIRILAK 23	APIRILAK 24
09:00 - 10:00		PRAKTIKA	---------	---------	PRAKTIKA
10:00 - 11:00		5- A 19-19	L. H. 1-B 15-15	Prak1-B 15-15	6- B
11:30 - 12:30		5- B 20-17	L. H. 1-A 16-16	Prak1-A 16-15	6- A

ORDUA	APIRILAK 27	APIRILAK 28	APIRILAK 29	APIRILAK 30	MAIATZAK 1
09:00 - 10:00			L. H. 4-B 21-21	L. H.4-B 21-20	
10:00 - 11:00	L. H.3-B 12-12	L. H.3-A 11-09	L. H. 4-A 22-20	L. H.4-A 22-21	
11:30 - 12:30	L. H.3-A 11-09	L. H.3-B 12-12			

ORDUA	MAIATZAK 4	MAIATZAK 5	MAIATZAK 6	MAIATZAK 7	MAIATZAK 8
09:00 - 10:00					
10:00 - 11:00	L. H.2-B 18-16	L.H.2-A 19-18		PRAK2-A 19-14	
11:30 - 12:30	L.H 2-A 19-18	L.H 2-B 18-16		PRAK 2-B 18-17	

ORDUA	MAIATZAK 11	MAIATZAK 12	MAIATZAK 13	MAIATZAK 19	MAIATZAK 15
09:00 - 10:00	PRAKTIKA	PRAKTIKA	PRAKTIKA	PRAKTIKA	
10:00 - 11:00	3- A	3- B	4- A	4- B	
11:30 - 12:30	11-11	12-11	22-21	21-21	

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

LH 1, LH 2 ETA LH 3 09:30-10:30 ETA 11:00-12:00 (BERAIEN JOLAS GARAIAREKIN KOADRATZEKO)

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA HERNANI

2025-2026 IKASTURTEA

URUMEA IKASTOLA

ORDUA	MARTXOAK 2	MARTXOAK 3	MARTXOAK 4	MARTXOAK 5	MARTXOAK 6
09:00 - 10:00	L. H. 3 - A	L. H. 3.- B		PRAKTIKA 3-B	
10:00 - 11:00	L. H. 3 - B	L. H. 3. - A			
11:15 - 12:15					

ORDUA	MARTXOAK 9	MARTXOAK 10	MARTXOAK 11	MARTXOAK 12	MARTXOAK 13
09:00 - 10:00	L. H. 4.- A	L. H. 4. - A	L. H. 6- A	L. H. 6- B	Praktika 2- A
10:00 - 11:00	L. H. 4. - B	L. H. 4.- B	L. H. 6- B	L. H. 2- A	
11:15 - 12:15	L. H. 2 - A	L. H. 1. - A	Prak L. H.1. - A	L. H. 6- A	

ORDUA	MARTXOAK 16	MARTXOAK 17	MARTXOAK 18	MARTXOAK 19	MARTXOAK 20
09:00 - 10:00	PRAKTIKA 4-A	GREBA	PRAKTIKA 4-B		
10:00 - 11:00					
11:15 - 12:15					

ORDUA	MARTXOAK 23	MARTXOAK 24	MARTXOAK 25	MARTXOAK 26	MARTXOAK 27
09:00 - 10:00	L. H. 5- B	L. H. 5- B	PRAKTIKA 3-A	PRAKTIKA 6. A 6. B	PRAKTIKA 5. A 5. B
10:00 - 11:00	L. H. 5- A	L. H. 5- A			
11:15 - 12:15					

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA HERNANI

2025-2026 IKASTURTEA

URUMEA IKASTOLA

ORDUA	MARTXOAK 2	MARTXOAK 3	MARTXOAK 4	MARTXOAK 5	MARTXOAK 6
09:00 - 10:00	L. H.3- A 13-12	L. H. 3.- B 13-13		PRAKTIKA 3-B 13-13	
10:00 - 11:00	L. H.3- B 13-12	L. H. 3.- A 13-13			
11:15 - 12:15					

ORDUA	MARTXOAK 9	MARTXOAK 10	MARTXOAK 11	MARTXOAK 12	MARTXOAK 13
09:00 - 10:00	L. H.4.-A 12-11	L. H.4.- A 12-12	L. H. 6- A 12-12	L. H.6- B 13-13	Prak 2-A 13-12
10:00 - 11:00	L. H.4.-B 13-13	L. H.4.- B 13-13	L. H. 6- B 13-12	L. H.2- A 13-11	
11:15 - 12:15	L. H.2.-A 13-13	L. H.1.- A 14-13	L. H.1.- A 14-10	L. H.6- A 12-12	

ORDUA	MARTXOAK 16	MARTXOAK 17	MARTXOAK 18	MARTXOAK 19	MARTXOAK 20
09:00 - 10:00	PRAKTIKA 4-A 12-11	GREBA	PRAKTIKA 4-B 13-13		
10:00 - 11:00					
11:15 - 12:15					

ORDUA	MARTXOAK 23	MARTXOAK 24	MARTXOAK 25	MARTXOAK 26	MARTXOAK 27
09:00 - 10:00	L. H.5- B 17-17	L. H.5- A 18-17	PRAKTIKA 3-A 13-13	PRAKTIKA 6. A 12-12 6. B 13-12	PRAKTIKA 5. A 18-17 5. B 17-15
10:00 - 11:00	L. H.5- A 18-18	L. H.5- B 17-17			
11:15 - 12:15					

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

LEHEN

ZIKLOA

≈

Programazioaren izenburua:

KALEAN BARRENA BAKARRIK IBILTZEN

Hartzaileak:

6 – 8 Urte

Egoeraren azterketa:

Adin honetako gauza garrantzitsuenetako bat da autonomia handiago hartzen hasten direla eta autonomia hori kalean barrena ibiltzerakoan ikusten da. Hasieran heldu baten eskutik ibiltzen dira, gero norbaitek lagundurik eta hortik helduen laguntzarik edo gainbegiradarik gabe ibiltzera pasatzen dira.
Oinezko gisa duten bizipena, beren burua heldu sentitzearen sentsazioarekin loturik, funtsezko hainbat kontzeptu lantzeko aukera eman dezakete, adibidez kalea ibilgailuekin partekatu behar dutela eta oinez ibiltzerakoan beren burua babesteko moduak bilatu behar dituztela.

Konpetentziak:

	Maila
Arreta	1-2
Zaugarritasun eta arriskuaren kontzientzia	1
Inguruaren azterketa	1-2
Egokitzapena eta malgutasuna	1-2

Programazioaren helburu orokorra:

- Joan- etorri seguruaren kontzeptua sortzea
- Arriskuari aurre hartzeko moduan jokatu behar da, beti erne

Egilea:

Aitor Portillo

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Izenburua: OINEZKOA NAIZ

DENBORA GUZTIRA: 120 ´ **HARTZAILEAK: 6 – 7 Urte**

HELBURUAK	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	NON	D.	D.G.
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da. Elkargune bat sortu eta ikasleen aurkezpena egiten da.	Gelan	5′	5′
"R" FASEA				15 ´
Parte-hartzaileak espazio arriskutsuak zein diren hausnartzea. Espazio arriskutsuek sorrarazten dizkiguten emozioez jabetzea.	Zenbait galderaren bitartez, hezitzaileak elkarrizketa hasiko du. Elkarrizketak bidea eman behar die haurrei bide publikoan nola ibiltzen diren azaltzeko. Nola etortzen zarete ikastetxera? Bakarrik ibiltzen zarete kalean? Noiz ibiltzen zarete bakarrik? Noiz ez? Kaleak bakarrik zeharkatzen dituzue? Kale guztiak? Zergatik ez zarete bakarrik etortzen ikastetxera eta bakarrik itzultzen etxera? Non jolasten zarete? Parkean? Plazan? Ibiltzen zareten leku horietatik guztietatik, zein da arriskutsuena, zuen ustez? Zergatik?	Gelan	15´	

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

“ 0 “FASEA				20 ´
Zirkulazio-arauak istripuak saihesteko modutzat jotzeko beharra baliostea.	Hezitzaileak jolas bat egingo dutela azalduko die. Jolasean, harrapa ez ditzaten saiatu behar dira. Hezitzaileak lau alde seguru mugatuko ditu zinta itsaskorrarekin, eta zenbakiak jarriko dizkie: 1, 2, 3 eta 4. Lau parte-hartzailek ikaskideak harrapatu beharko dituzte ikaskideak segurtasun-aldetik kanpo daudenean (zinta itsaskorrarekin mugatutako aldeak izango dira segurtasunaldeak). Gainerako parte-hartzaileak lau taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari alde seguru bat esleituko zaio. Alegia, jolasaren amaieran: **1. aldeko** parte-hartzaileek **3. aldean** egon beharko dute. **2. aldeko** parte-hartzaileek **4. aldean** egon beharko dute. **3. aldeko** parte-hartzaileek **1. aldean** egon beharko dute. **4. aldeko** parte-hartzaileek **2. aldean** egon beharko dute. Hezitzaileak seinale baten bidez adierazten duenean, jolasa hasiko da. Haurrek mugitu beharko dute, esleitutako aldera iristeko, baina harrapa ez ditzaten saiatu behar dira. Nahi dutenean irten daitezke alde segurutik, baina horretarako denbora mugatua izango dute.	Gelan	20 ´	

	Hezitzaileak berriz seinale bera egiten duenean, jolasa amaituko da. **Ikaskideek harrapatu dituztenei galdera hauek egingo zaizkie:** Nola sentitu zarete? Zergatik harraptu zaituztete? Egin aha izan duzuen zerbait, ez harrapatzeko? Zer? **Helburua bete eta alde segurura iristea lortu dutenei, honako hauek:** Nola lortu duzue alde segurura iristea, ikaskideek harrapatu gabe? Horrez gain, jolasean "harrapatzaileek" harrapa ez gaitzaten zer egin dezakegun edo zer arau jar dezakegun ere galdetuko du.			
" A "FASEA				20´
Oinezkoen igarobidean, semaforoaren eta bidezainaren seinaleen zeregina ulertzea. Kaleak era seguruan zeharkatzeko beharrezko diren prozedurak ezagutzea eta gauzatzea.	Hezitzaileak bidegurutze bat simulatuko du, aulkiekin. Galderetatik abiatuz, **«oinezkoen igarobidea»** kontzeptura iritsiko gara. Une horretan, oinezkoen igarobidea marraztuko dugu lurzoruan, klariona, zinta isolatzailea edo beste materialen bat erabiliz. Hezitzaileak zubi bat oinezkoen igarobidearekin aldera dezake, eta ibai bat kale batekin. Ibai bat busti gabe zeharkatu nahi badugu, zubitik pasatu beharko dugu. Kale bat era seguruan zeharkatu nahi badugu, oinezkoen igarobidetik pasatu beharko dugu.	Gelan	20´	

	Hezitzaileak haur bati eskatuko dio azal eta antzeztuz adieraz dezala nola zeharkatu behar den kalea, eta gainerako ikasleei galdetuko die ea ikaskideak ondo egin duen ala ez. Jarraian, ariketa bera egingo da beste pertsona batekin, ziurta dadin gainerako haurrek behar bezala ikasi dituztela honako hauek: - Zeharkatu aurretik geratu behar dela. - Ezkerretara, eskuinetara eta berriz ezkerretara begiratu behar dela. - Azkar baina korrika egin gabe zeharkatu behar dela. - Ibilgailurik ez badator edo ibilgailuak geratuta badaude baino ezin dela zeharkatu. Hezitzaileak galdetuko du ea kalea zeharkatzeko beste elementurik ba al den ala ez. Haurrek **«semaforoa»** erantzuten dutenean, semaforoa nolakoa den galdetuko die. Haurrek semaforoaren argien koloreak zein diren esan beharko dute. Ondoren, galdetuko du ea nork egin behar dion kasu semaforoari: oinezkoek ala "harrapatzaileek". Ondorioztatuko dute semaforo bat dagoela oinezkoentzat, eta beste bat ibilgailuentzat; eta bata berde dagoenean, bestea gorri egongo dela. Batzuetan, oinezkoen igarobideaz gain, bidezaina ere ikus dezakegu kalean. Hark, kalea zeharkatzen lagunduko digu, edo gerarazi eta itxaronarazi egingo digu, ibilgailuak pasa daitezen...			

HELBURUAK				
	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	**NON**	**D.**	**D.G.**
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da. Elkargune bat sortu eta ikasleen aurkezpena egiten da.	Gelan	5′	5′
"R" fasea			20′	20′
-Seguru sentitzen ez naizenean sortzen zaizkidan emozioei antzematea (beldurra, segurtasun-gabezia eta abar). -Galtzen naizenean edo segurtasun-gabezia eragiten didan egoeretan lasai egon behar dela balioestea. -Lekualdaketak arretaz egitea garrantzitsua dela balioestea.	"DENAK DU KONPONBIDEA" ipuina irakurtzen zaie.	Gelan	10′	10′
-Galtzen garenean zer egin behar dugun jakitea.	Ipuina irakurri eta gero galdera batzuk egiten zaizkie: -Zuentzat zein da irtenbide onena? -Zuetako zeintzuk dakizue zein kaletan bizi zareten? -Hurrengo egunerako kalea,pisua eta etxeko baten telefono zenbakia ikasi etxean galdetuz.		10′	10′
"O" fasea			20′	20′

-Kalean gaudenean ikusten ditugun arriskuak identifikatzea.	Zebra bidea kontzeptura iritsiko gara. Jolas baten bidez zebrabidea gurutzatzen ikasi. -Ikasle bat hezitzailearen aurrean jarriko eta besteak ilaran. -1,2 eta 3 zenbatzen hasi eta pilota pasatzen joan, ilaran dauden ikasleak erditik pasa behar dira pilota ukitu gabe. -Aldatu laguntzailea eta orain pilota pasa bai, baina nahi dugunean. -Gaizki erabakitzen badugu zein da arriskua? -Galderak: Nora begiratzen duzue? Pelotara edo nire begietara? Zailago?			
"A" fasea			15′	15′
Zebrabidea gurutzatzen ikasi	Zinta batekin errepide bat eta zebrabide bat irudikatuko dugu. Bi aulki jarri aurrez aurre eta gidarien papera egingo dugu. -Galdera: Erdikoa ze izango da? Zebrabidea ezta? Ba zebrabidea izango balitz bezala pasa beharko dute. -Ondorioztatu beharko dute zebrabidea gurutzatzeko 3 aldiz begiratu beharko dutela.	Gelan	15′	15′

Izenburua: OINEZKOA NAIZ

DENBORA GUZTIRA: 180 ´ **HARTZAILEAK: 7 – 8 Urte**

HELBURUAK	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	NON	D.	D.G.
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da eta elkargune bat antolatzen dugu. Ikasleen aurkezpena.	Gelan	5′	5′
"R" FASEA				15 ´
Autoan eserita nola joaten naizen hausnartzea (zein tokitan, haurrak eusteko zein gailurekin eta abar).	Hezitzaileak fitxa bat emango dio haur bakoitzari. Fitxan, auto baten barrualdearen argazkia agertuko da. Haurrek autoan ibiltzen direnean eserlekuetan nola esertzen diren marraztu behar dute. Marrazki guztiak erabiliz horma-irudi bat egingo dute, eta irudi bakoitza erabiliz, eztabaida egingo dute honak hauen inguruan: - Nola daude haurrak eserita autoan? - Non joan behar dute haurrek? - Zergatik joaten dira han? - Uhala jarrita eramaten dut? Haurren aulkitxoan joaten naiz? - Beste ibilgailu batean joaten naizenean, zer egiten dut? - Beti joan ohi niaz han?	Gelan	15´	
" O "FASEA				20 ´

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

- Ondo lotuta ez banoa, zaurgarri naizela jabetzea. - Ezustekoren bat gertatzen bada ere, badaezpada, otuta joan behar dudala konturatzea.	Hezitzaileak binaka jarriko ditu haurrak, eta bikotekideak bata bestearen aurrean egon behar dira. Atzean joango denak begiak estalita izango ditu, eta aurrean izango duen bikotekideari atzemarrekin helduko dio, arinki, elastikotik. Hezitzaileak honako agindu hau emango du: Alde batetik beste aldera azkar-azkar joan behar duzue. Bi aldeetara askatu gabe joan-etorri gehien egiten duen bikoteak irabaziko du. Bikotekideak askatzen badira, geratu eta berriz heldu behar dio batak besteari. Hezitzaileak besoa altxatzen duenean, bikoteak azkar-azkar alde batetik bestera joango dira. Besoa jaisten duenean, bat-batean geratu beharko dira. Ariketa zenbait aldiz egingo da, gutxienez bikoteren bat askatzen den arte. Ondoren, bikotekideek rola aldatuko dute: une horretara arte aurrean izan direnak atzean jarriko dira, eta atzean izan direnak, aurrean. Jarduera berriz egingo da. Bikotekideek bi rolak egin eta gero, hezitzaileak zapiak banatuko ditu (korbatak edo sokak izan daitezke), eta gerrian lotuko dituzte. Atzean dagoenak (begiak estalita izango ditu) aurrekoari helduko dio, gerrian lotuta izango duen zapitik. Atzean joango direnei azaldu behar zaie aurrean doan bikotekidearen abiadura leunki galgatu behar dutela. Bikotekidea gelditu behar da hezitzaileak besoa jaisten duenean. Hainbat aldiz abiarazi eta belditu behar dira. Jolasa bukatxzen denean, haurrei galdetu behar die hezitzaileak ea zer gertatu den jolasten ari diren bitartean: - Nola sentitu da aurreko bikotekidea lehenengo eta biarren jardueratan? - Noiz izan da lotuago?Ondorioztatu behar dute zapiarekin lotuago eta seguruago izan direla, atzamarrekin aurreko pertsonaren elastikoari eutsita ibili direnean baino.	Gelan	20 ´	

" A "FASEA				20´
Babestua izateko eta autotik jaurtita bezala ez irteteko haurrak eusteko sistemarekin ondo lotuta joateko beharraz ohartzea.	Parte hartzaileek hezitzaileak egingo dizkien galderei erantzun behar diete, eta jolasean nola sentitu diren hausnartu behar dute. Segurtasun-uhalaz edo segurtasun pasiboko elemntuez (aulki jasogailua, esate baterako) hitz egin behar dute, azkenean. -Autoan ibiltzen zaretenean, egin dugun jardueraren antzeko zerbait gertatzen al zaizue? -Zer gerta daiteke lotu gabe joanez gero? -Zuen ustez, zergatik ez ditugu segurtasun-gailuak lotzen, batzuetan? (edo, zuen ustez, jendeak zergatik ez ditu lotzen, batzuetan) -Nola saihets dezakegu hori? Hezitzaileak eztabaida bideratuko du, ziurta dezan haurrek argi dutela haurrak eusteko gailuak erabili behar direla eta segurtasun-uhala lotu behar dela. Helburua guztiek argi izan dezaten haurrak eusteko gailuak beti eta behar bezala erabili behar direla izango da.	Gelan	20´	
1go Saioa		Gelan	60´	60´
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da eta elkargune bat antolatzen dugu. Ikasleen aurkezpena eta aurreko egunean egindakoaren errepasoa.	Gelan	5´	5´

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

"R" fasea			20´	20´
Belarriekin ikusten ikasi	Taldeka jarri eta ordezkari bat aukeratu beharko dute. Belarriekin ikusi behar dugunez, soinua identifikatu beharko dute. Taldeak adostu behar du erantzuna eta ordezkariak erantzun.	Gelan	20´	20´
"O" fasea			20´	20´
Begiak erabili gabe orientatzea	Talde bakoitzari mozorro bana banatu eta soinua egiten duten tresna ezberdinak banatu. Taldeko batek mozorroa jarri eta taldeko beste ordezkari bat soinu tresna hartu eta gelako alde batean jarriko da. Mozorroa duenak lokalizatu behar du bere taldekidea non dagoen. Denbora pixka bat pasa eta gero beste taldekideek lagunduko diote soinua egiten ari den taldekidea lokalizatzen. Baina hitzez lagunduko diote bakarrik, ezingu dute ukitu.	Gelan	20´	20´
"A" fasea			15´	15´
Kalean dauden arriskuak belarriak erabiliz identifikatzea	Kalean errepideari bizkarra emanaz asmatu beharko dute trafikoan gertatzen dena.	Kalean	15´	15´
2go Saioa			60´	60´
"A" fasea			60´	60´
Kaleko arriskuak identifikatu, herria ezagutu.	Kale buelta bat egiten dugu, bertan praktikan jartzen dugu ikasitakoa: Gune seguruak, gune arriskutsuak eta gune partekatuak. Zebrabideak gurutzatzen ditugu eta bereziki esaten zaie kalean zehar adi joan behar dutela, "tranpa" asko daudelako. Garaje irteera eta sarrerak...	Kalean	60´	60´
3go Saioa		Kalean	60´	60´

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

ESPAZIO SEGURUA

EDUKIAK, GAITASUNAREN ARABERA: HARTZAILEAK: 6 – 8 Urte

INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK	TREBETASUNAK	BALIOAK ETA JARRERAK
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia **1. maila:** Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa.		
- Alerta eta beldurreko erreakzio - Arriskuaren aurreko erantzunak. - Arriskuaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa.	- Arrisku-egoeren aurrean, erreakzio fisiko eta emozionalak identifikatzea - Eguneroko mugikortasunekintzetan egon daitezkeen arrisku-egoerak aztertzea.	- Autobabesa. - Autoezagutza: norberaren aukerei buruzko itxaropen errealak izatea

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Ingurunearen azterketa

1. maila: Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du.

- Alde segurua / ez segurua oinarrizko kontzeptua. - Bide-ingurunean oinezkoentzat dauden oinarrizko arauak eta seinaleak. - Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa. - Egoera zailetan jarraitu beharreko arauak (galduta dagoen haurra...).	- Oinezkoei zuzendutako oinarrizko seinaleak identifikatzea eta erabiltzea. - Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea. - Laguntza eskatzerakoan, argitasunez adierazten jakitea.	- Behaketa: adi egotea. - Autobabesa. - Laguntza eskatzea / laguntza onartzea. - Lasaitasuna: kontrola ez galtzea.

Egokitzapena eta malgutasuna

1. maila: Bide-ingurunea dinamikoa eta aldakorra dela konturatzen da, eta oinarrizko ohitura seguruak hartzen ditu.

- Alde segurua/ez segurua oinarrizko kontzeptua.	- Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea. - Laguntza eskatzea / laguntza onartzea.	- Autobabesa. - Autoezagutza: beldurraz jabetzea.

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

1. maila: Oinarrizko barne-egoerak hautematen ditu, eta badaki bide-portaeraren gainean ondorioak izan ditzaketela.

- Barruko sentsazioak. - Oinarrizko egoera emozionalak.	- Erreakzio fisikoak eta emozionalak identifikatzen ditu	- Autobabesa.

1. JARDUERA

IZENBURUA :	**DENAK DU KONPONBIDEA**

Formazioa:	R	X	O	X	A		(C)		Iraupena:	25 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	X	Jokoa		Simulazioa	x
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	x
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Seguru sentitzen ez naizenean sortzen zaizkidan emozioei antzematea (beldurra, segurtasun-gabezia eta abar).
Galtzen naizenean edo segurtasun-gabezia eragiten didan egoeratan lasai egon behar dela baliostea.
Lekualdaketak arretaz egitea garratzitsua dela baliostea.

JARDUERA :

Hezitzaileak Denak du konponbidea ipuina irakurri edo kontatuko die haurrei, eta giro egokia sortuko du haurrek protagonisten larruan jar daitezen eta protagonistek sentitzen dutena beraiek ere senti dezaten (beldurra, bakardadea eta abandonatua izatea). Halaber, protagonistek arrisku-egoerak gainditzeko eta halako egoerei aurre egiteko duten ahalmena ere hauteman beharko dute.
Irakurraldian, zenbait galdera eginez, pertsonaiek sentitzen dituzten emozioak antzez ditzaten eskatuko die haurrei. Gero, gogoetari bidea emango dio, beldurra noiz izaten dugun eta beldurra izateak zertan laguntzen digun hausnartzeko

BALIABIDEAK:

- Ipuina
- Zinta itsaskorra

2. JARDUERA

IZENBURUA :	**GALDU NAIZ**

Formazioa:	R		O	X	A		(C)		Iraupena:	25 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	X
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	X
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak inguruaren informazioa jasotzea eta egoera desberinak biziz bai izatea erabakiak hartzeko

JARDUERA :

Antzerkia eginez parte-hartzaileek ikastolatik parkera doazenean lurrean markatutako zebrabide bat zeharkatu behar dute.

Bide horretan bi edo hiru parte-hartzaile galtzen dira.

Maixuak Udaltzaingora deitu eta jakinaren gainean jarri ondoren ze urratsak ematen diren egoera arriskutsuak ekiditeko aztertu eta azaltzen dira.

BALIABIDEAK:

- Zinta itsasgarria
- Udaltzainak
- Walkie Talkie

3. JARDUERA

IZENBURUA :	ZER EGIN HARRAPA EZ NAZATEN

Formazioa:	R		O	X	A		(C)		Iraupena:	15 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa	X	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Zirkulazio-arauak istripuak saihesteko modutzat jotzeko beharra baliostea.

JARDUERA :

Hezitzaileak jolas bat egingo dutela azalduko die. Jolasean, harrapa ez ditzaten saiatu behar dira.
Bi talde egingo dira eta bi harrapatzaile egongo dira.
Bi harrapatzaileek ikaskideak harrapatu beharko dituzte ikaskideak segurtasun-aldetik kanpo daudenean (zinta itsaskorrarekin mugatutako aldeak izango dira segurtasun-aldeak).
Gainerako parte-hartzeleak bi taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari alde seguru bat esleituko zaio eta eremu arriskutsutik igaro beharko dute beste taldea dagoen segurtasun gunera pasatzeko helburuarekin.
Lortu nahi dena da haurrek ondorioztatzea, nahiz eta egunen batean ezer gertatu ez eta ibilgailuek ez harrapatu, epe luzera, harrapa gaitzaketela.
Hori ez gertatzeko, jokoaren bigarren zatian galderen bitartez arau batzuk sortuko ditugu harrapatzaileek harrapa ez gaitzaten.

BALIABIDEAK:

- Zinta itsaskorra
- Udaltzainen seinaleak
- Semaforoen fitxa

4. JARDUERA

IZENBURUA :	**HEMENDIK GURUTZATU**

Formazioa:	R		O	X	A		(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	X
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	x
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak arriskua hautematea eta informazioa supituki jasotzea, portaera egokiak barneratuz.

JARDUERA :

Galderetatik abiatuz, oinezkoen igarobidea kontzeptura iritsiko gara.
Parte-hartzaileei oinezko pasabide bat diseinatzeko eskatuko zaie, zinta itsaskorrarekin gelaren barruan.
Hezitzaileak zubi bat oinezkoen igarobidearekin aldera dezake, eta ibai bat kale batekin. Ibai bat busti gabe zeharkatu nahi badugu, zubitik pasatu beharko dugu. Kale bat era seguruan zeharkatu nahi badugu, oinezkoen igarobidetik pasatu beharko dugu.
Ondoren zer egin, nola eta nondik gurutzatu behar den galdetzen zaie.
Egoerak antzeztu ondoren seguruak eta bidezkoak ez diren jokaerak aztertuko dira.

BALIABIDEAK:

- Zinta itsasgarria

5. JARDUERA

IZENBURUA :	NIK BAKARRIK BADAKIT

Formazioa:	R		O		A	X	(C)		Iraupena:	60 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	X
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak aplikatzea egiazko kale egoerak

JARDUERA :

Ikastolaren inguruetatik oinez kalean dauden arriskuak ohartaraziz eta neurri seguruak har dezaten ezbeharrak gutxitzeko.

Ibilbidean dauden seinaleak ezagutu, esanahia gogoraziz eta jarraian gelan bateratze lanean parte-hartzaileen pertzepzio desberdinak alderatuz

BALIABIDEAK:

- Arbela

6. JARDUERA

IZENBURUA :	NOLA JOATEN NAIZ AUTOAN?

Formazioa:	R	X	O		A		(C)		Iraupena:	60 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida	x	Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Autoan eserita nola joaten naizen hausnartzea (zein tokitan, haurrak eusteko zein gailurekin eta abar).

JARDUERA :

Hezitzaileak fitxa bat emango dio haur bakoitzari. Fitxan, auto baten barrualdearen argazkia agertuko da. Haurrek autoan ibiltzen direnean eserlekuetan nola esertzen diren marraztu behar dute.
Marrazki guztiak erabiliz horma-irudi bat egingo dute, eta irudi bakoitza erabiliz, eztabaida egingo dute honak hauen inguruan:
- Nola daude haurrak eserita autoan?
- Non joan behar dute haurrek?
- Zergatik joaten dira han?
- Uhala jarrita eramaten dut? Haurren aulkitxoan joaten naiz?
- Beste ibilgailu batean joaten naizenean, zer egiten dut?
- Beti joan ohi niaz han?

BALIABIDEAK:

- Auto baten barrualdearen fitxa.

7. JARDUERA

IZENBURUA :	EZ ZAITEZ ASKA!

Formazioa:	R	O	X	A	(C)	Iraupena:	60 ´
Ebaluaketa							

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	X	Jokoa	X	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

- Ondo lotuta ez banoa, zaurgarri naizela jabetzea.
- Ezustekoren bat gertatzen bada ere, badaezpada, otuta joan behar dudala konturatzea.

JARDUERA :

Hezitzaileak binaka jarriko ditu haurrak, eta bikotekideak bata bestearen aurrean egon behar dira. Atzean joango denak begiak estalita izango ditu, eta aurrean izango duen bikotekideari atzemarrekin helduko dio, arinki, elastikotik.
Hezitzaileak honako agindu hau emango du: Alde batetik beste aldera azkar-azkar joan behar duzue. Bi aldeetara askatu gabe joan-etorri gehien egiten duen bikoteak irabaziko du. Bikotekideak askatzen badira, geratu eta berriz heldu behar dio batak besteari.
Hezitzaileak besoa altxatzen duenean, bikoteak azkar-azkar alde batetik bestera joango dira. Besoa jaisten duenean, bat-batean geratu beharko dira.
Ariketa zenbait aldiz egingo da, gutxienez bikoteren bat askatzen den arte.
Ondoren, bikotekideek rola aldatuko dute: une horretara arte aurrean izan direnak atzean jarriko dira, eta atzean izan direnak, aurrean. Jarduera berriz egingo da.
Bikotekideek bi rolak egin eta gero, hezitzaileak zapiak banatuko ditu (korbatak edo sokak izan daitezke), eta gerrian lotuko dituzte.
Atzean dagoenak (begiak estalita izango ditu) aurrekoari helduko dio, gerrian lotuta izango duen zapitik. Atzean joango direnei azaldu behar zaie aurrean doan

bikotekidearen abiadura leunki galgatu behar dutela. Bikotekidea gelditu behar da hezitzaileak besoa jaisten duenean. Hainbat aldiz abiarazi eta belditu behar dira.
Jolasa bukatxzen denean, haurrei galdetu behar die hezitzaileak ea zer gertatu den jolasten ari diren bitartean:
- Nola sentitu da aurreko bikotekidea lehenengo eta biarren jardueratan?
- Noiz izan da lotuago?
Ondorioztatu behar dute zapiarekin lotuago eta seguruago izan direla, atzamarrekin aurreko pertsonaren elastikoari eutsita ibili direnean baino.

BALIABIDEAK:

- Antifazak eta korbatak (sokak)

8. JARDUERA

IZENBURUA :	HAURRAK EUSTEKO SISTEMAK BETI ERABILI

Formazioa:	R	O	A	(C)	Iraupena:
			X		60 ´

Ebaluaketa

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Babestua izateko eta autotik jaurtita bezala ez irteteko haurrak eusteko sistemarekin ondo lotuta joateko beharraz ohartzea.

JARDUERA :

Parte hartzaileek hezitzaileak egingo dizkien galderei erantzun behar diete, eta jolasean nola sentitu diren hausnartu behar dute. Segurtasun-uhalaz edo segurtasun pasiboko elemntuez (aulki jasogailua, esate baterako) hitz egin behar dute, azkenean.
-Autoan ibiltzen zaretenean, egin dugun jardueraren antzeko zerbait gertatzen al zaizue?
-Zer gerta daiteke lotu gabe joanez gero?
-Zuen ustez, zergatik ez ditugu segurtasun-gailuak lotzen, batzuetan? (edo, zuen ustez, jendeak zergatik ez ditu lotzen, batzuetan)
-Nola saihets dezakegu hori?
Hezitzaileak eztabiada bideratuko du, ziurta dezan haurrek argi dutela haurrak eusteko gailuak erabili behar direla eta segurtasun-uhala lotu behar dela.
Helburua guztiek argi izan dezaten haurrak eusteko gailuak beti eta behar bezala erabili behar direla izango da.

BALIABIDEAK:

- Arbela

9. JARDUERA

IZENBURUA :	**BELARRIEKIN IKUSI**

Formazioa:	R		O		A	X	(C)		Iraupena:	60 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa	X	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia	X	Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Kaleko soinuei arreta jartzea eta ohartzea informazio asko atera daitekeela soinuei arreta jarriaz.

JARDUERA :

Hezitzaileak taldeak egingo ditu eta beraiek bozeramaile bat aukeratu beharko dute. Parte hartzaileek hezitzaileak jarriko dizkien soinu ezberdinak identifikatu beharko dituzte. Bukaeran artalde batek ateratako zarata jarriko zaie eta identifikatu beharko dute animali handiak diren, txikiak...geldirik dauden, joaten, etortzen...(animali zintzarri handiekin = ibilgailu handiak, animali zintzarri txikiekin= ibilgailu txikiak). Zintzarrien zarata ibilgailuen zaratekin lotura bilatzea izango da hezitzailearen helburua.
Hori eta gero talde bakoitzak bozeramailea ez den beste bat aukeratu beharko dute eta hauek ezkutuan egongo dira txirrin ezberdinekin. Taldeko beste bat begiak estalita dituela bere taldekidea topatu beharko du bere txirrinak egiten duen soinua identifikatuz eta horren arabera orientatuz.
Bukatzeko, praktika egunean errepidera bizkarra emanez ibilgailuen tamaina eta portaera identifikatu beharko dituzte.

BALIABIDEAK:

- Pendrive
- Txirrina ezberdinak

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

- Antifazak

L . H . H . (1 go. maila)













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA
HERNANI

L . H . H . (2. maila)













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus



Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

BIGARREN

ZIKLOA

≈

Programazioaren izenburua:

NI ERE ARDURADUN

Hartzaileak:

8 – 10 Urte

Egoeraren azterketa:

Adin honetako seme-alabak dituzten gurasoak kexatu egiten dira maiz beren haurrak autoan eramaterakoan sesioan ibili behar dutelako segurtasun uhala edo dena delako segurtasun-tresna jar dezaten.
Egia da, bai, gurasoek seme-alabak segurtasun pasiborako tresnak erabiltzera behartu ditzatela, baina askozaz ere hobea eta errazagoa izango litzateke haurrek berek koszienteki erabiltzea eta gurasoei bultzatzea segurtasun pasiborako tresnak beraiek ere erabiltzea.

Konpetentziak:

	Maila
Zaugarritasun eta arriskuaren kontzientzia	1-2
Inguruaren azterketa	1-2

Programazioaren helburu orokorra:

- Ideia honetaz jabetzea : ibilgailuan seguru joatea, baita gidariak ez bagara ere, ez dago gidariaren baitan bakarrik, norberaren baitan baizik

Egilea:

Aitor Portillo

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Izenburua: BIDAIARIA NAIZ

DENBORA GUZTIRA: 120´ + 120´ **HARTZAILEAK: 9 –10 Urte**

HELBURUAK	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	NON	D.	D.G.
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da Elkargunea sortzen da eta ikasleek beraien aurkezpena egiten dute.	Gelan	10′	10′
"R" FASEA				70´
Oinezko ginela bizi izandako arrisku-egoerak gogoratzea, eta tartean izan ziren elementuekin lotzea.	Ikasleek hitz egingo dute kalean oinez-bakarrik zein helduren batekin-zebiltzala gertatu zaizkien anekdotak, ezustean sortutako arrisku-egoerak, aurreikusi gabekoak edo bat-bateko portaera-aldaketak eragin dituzten egoeraz.	Gelan	20 ´	
Segurtasun pasiboko gailua identifikatzea	Segurtasun pasiboko gailuak noiz erabiltzen ditugun, ea beti erabiltzen ditugun eta nola erabiltzen ditugun eztabaidatuko da.	Gelan	15 ´	
Parte-hartzailea jabe dadila joan-etorrietan bere gain har ditzakeen arriskuez eta arrisku horiek balora ditzala.	Ahoz azaltzen zaie autobusez eta trenez ibiltzerakoan oso seguruak ez diren egoerak. Kalera irten aurretik gogorarazten zaie trafikoan zein portaera eduki behar duten oinezko bezala.	Gelan	25 ´	
" O "FASEA				100´

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Segurtasun pasiboko gailua eraginkorra izan dadin, gailua bidaiariaren neurrira estuki lotu behar dela ohartzea.	Ibilbide bat egin behar da, soka batekin. Txandaka, partehartzaile talde batek ibilbidea egin beharko du, uneoro soka zapalduz eta baso bat ur goraino beteta eskuan duela. Baldin ura erortzen bazaie edo soka zapaltzen ez badute, berriz hasi beharko dute ibilbidea. Nahi izanez gero, hezitzaileak ibilbidea egiten behar duten denbora kronometra dezake, jolasean presio handiagoa jartzeko. **I. aldia:** Parte-hartzaile bakoitzak ibilbidea egin dezake, soilik orain arte aipatutako zailtasunekin. **II. aldia:** jolasa zailago egingo du hezitzaileak; horretarako, parte-hartzaile bakoitzari zapata-pare oso handia jarriko dio oinetan, bai eta paperezko txapel handi-handia ere buruan, ibilbidea ikusten ez uzteko modukoa. **III. aldia:** jolasa berriz zailduko da, baina alderantziz, oraingoan; parte-hartzaileek ibilbidea egin beharko dute oso zapata txikiak jantzita, eta txapel txiki-txikia buruan. Txapela behin eta berriz eroriko zaie eta, beraz, ezin izango dute ibilbidea behar bezala egin.	Gelan	20 ´	
Parte-hartzaileak bere hurbileneko ingurua ezagut dezala.	Kale-mapa bat ematen zaie. Han beren etxea eta ikastetxea non dauden bilatu behar dute eta bien artean egiten duten ibilbidea markatu behar dute, eskolako bidea, alegia.	Gelan	10 ´	
" A "FASEA				120 ´

Parte-hartzailea autoan segurtasun pasiboko elementuak behar bezala erabili gabe ibiltzeak dakarren segurtasunik ezaz jabe dadila.	Gelan simulazio bat egiten da: galtzada bat eta auto bat, parkean dauden seme-alaben bila joaten dena. Gidariak seme-alabei deitzen die eta kotxean sartzen dira. Gero denen artean eztabaidatzen da zerbait gaizki egin ote duten, eta jokabide seguruagoak bilatzen dira.		20 ´	
BESTE SAIO BAT				240 ´
Parte-hartzaileak joan-etorrietan estrategia seguruak har ditzala.	Ibilbide bat egiten da, oinez, ikastetxetik tren geltokira, eta gero handik trena hartuta beste herri batera. Herri horretan atzera gure herrira itzultzeko autobus geltokia bilatzen da. Jokabideak aztertzen dira eta arriskua gutxitzeko estrategiak bilatzen dira.	kalean	120 ´	

BAKARRIK KALEAN BARRENA

EDUKIAK, GAITASUNAREN ARABERA: HARTZAILEAK: 8 – 10 Urte

INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK	TREBETASUNAK	BALIOAK ETA JARRERAK
1. maila: Sentikorra da oinarrizko zentzumenen bidez jasotako informazioekiko.		**Arreta**
- Zentzumenak: funtzionamendua eta mugak.		- Bide-errealitate konplexu, aldakor eta anbiguora egokitzeko ahalmena. - Norberaren akatsak onartzea

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

2. maila: Badaki zein garrantzitsua den arreta mugikortasun seguruan.		
Arreta ohiturekin nahiz automatismoekin duen lotura.	- Estimulu-kopuru handiagoa diskriminatzea. - Nahi gabe hartu dituen ohiturak	- Norberaren mugak eta guztia kontrolatzea ezinezkoa dela onartzea. - Egokikortasuna: aurreikusten ez den horretara irekita egotea. - Adi egon beharra eta arreta mantendu beharra balioestea.
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia **1. maila:** Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa.		
- Alerta eta beldurreko erreakzio - Arriskuaren aurreko erantzunak. - Arriskuaren oinarrizko kontzeptua.	- Arrisku-egoeren aurrean, erreakzio fisiko eta emozionalak identifikatzea. - Eguneroko mugikortasunekintzetan egon daitezkeen arrisku-egoerak aztertzea.	- Autobabesa. - Autoezagutza: norberaren aukerei buruzko itxaropen errealak izatea.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Ingurunearen azterketa

1. maila: Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du.

- Alde segurua / ez segurua oinarrizko kontzeptua	- Oinezkoei zuzendutako oinarrizko seinaleak identifikatzea eta erabiltzea. - Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea.	- Behaketa: adi egotea. - Autobabesa. - Arauak errespetatzea
2. maila: Bide-ingurunea aztertzen du, elementu ezberdinak aintzat hartuz, eta aukera ezberdinen artean erabakitzeko gai da, bere buruaren segurtasuna balioetsiz.		
- Alde segurua / ez segurua kontzeptua.	- Behatzeko ahalmena. - Estimulu ugari aldi berean identifikatzea eta baliostea, eta horien aurrean bizkor erantzuteko gai izatea.	- Errespetua. - Autonomia. - Zuhurtzia

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Egokitzapena eta malgutasuna

1. maila: Bide-ingurunea dinamikoa eta aldakorra dela konturatzen da, eta oinarrizko ohitura seguruak hartzen ditu.

- Alde segurua / ez segurua oinarrizko kontzeptua. - Bide-portaera segururako jarraibideak: eskuinetik joatea, ibiak zaintzea, kaletik jolasean ez joatea... - Bide-ingurunearen aldaketak	- Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea. - Ohiko bide-ingurunean eman diren aldaketak identifikatzea. - Ekintza-jarraibide seguruak aplikatzea ohikoa duen bideingurunean aldaketak gertatzen direnean.	- Adi egotea. - Autobabesa. - Autoezagutza: beldurraz jabetzea. - Autoezagutza: norberaren gaitasunez jabetzea
2. maila: Mugikortasun-egoera desberdinetara egokitzen saiatzen da, bere segurtasuna zaintzeko.		
	- Segurtasunez erantzutea bideko ezustekoen aurrean.	- Behaketa: adi egotea.

NIRE ARDURA ERE BADA

EDUKIAK, GAITASUNAREN ARABERA: HARTZAILEAK: 8 – 10 Urte

INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK	TREBETASUNAK	BALIOAK ETA JARRERAK
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia **1. maila:** Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa.		
- Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa.	- Istripua eta istripuaren ondorio larriak erlazionatzea. - Segurtasun pasiboko ohitura errazak erabiltzea	- Autobabesa. - Autoezagutza: norberaren aukerei buruzko itxaropen errealak izatea

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA HERNANI

Ingurunearen azterketa

1. maila: Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du.

- Alde segurua / ez segurua oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa.	- Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea. - Segurtasun pasiboko ohitura errazak erabiltzea.	- Autobabesa.
2. maila: Bide-ingurunea aztertzen du, elementu ezberdinak aintzat hartuz, eta aukera ezberdinen artean erabakitzeko gai da, bere buruaren segurtasuna balioetsiz.		
- Alde segurua / ez segurua kontzeptua. - Bideko segurtasun-gabezian eragina duten elementuak.	- Behatzeko ahalmena.	- Autonomia. - Zuhurtzia.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

1. JARDUERA

IZENBURUA :	**SEINALEAK IDENTIFIKATU**

Formazioa:	R [X]	O [ ]	A [ ]	(C) [ ]	Iraupena: 30 ´
Ebaluaketa					

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	X	Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak trafikoan parte hartzen duten elementuak identifika eta koka ditzala.

JARDUERA :

Elkarrizketa baten bidez parte-hartzaileek trafikoarekin zerikusia duten seinaleak bilatzen dituzte.

Ikasiko dituzten seinaleak INFORMAZIOA, AGINDUA, DEBEKUA ETA ARRISKUA izango dira.

Kontzeptua hartu ondoren, fitxa bat entregatuko zaie ikasleei, bakoitzak berea identifikatu dezan.

Bukatzeko beraien fitxekin arreta landuko da.

BALIABIDEAK:

- Seinaleen fitxak
- Margoak

2. JARDUERA

IZENBURUA :	EZ ZAIT EZER TOKATZEN?

Formazioa:	R		O	X	A		(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida	X	Kontzeptu mapa		Antzezlana	X
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzailea jabe dadila arauak beharrezkoak direla bide-segurtasuna areagotzeko.

JARDUERA :

Arbelean borobil bat marrazten da. Parte-hartzaileei azaltzen zaie borobil horren barruan bere desiorik preziatuenak daudela.
Parte-hartzaileak, seinale jakin bat egiten zaienean, beren eserlekuetatik altxatu eta arbelerantz joaten dira, eta eskuarekin borobilaren barruan dagoena eta borobila markatzen duen marra zuria bera ere hartzen dute.

Bukatu ondoren, eta marra zuria desagertzen dela ikusita, egin dena aztertzen da, bateratze lanaren bidez, eta parte-hartzaile guztiek beren desioak lortzeko aukera berak izateko arauren bat bilatu beharraz eztabaidatzen dute.

BALIABIDEAK:

- Arbela, klariona
- Orriak , boligrafoak

3. JARDUERA

IZENBURUA :	ARRETA

Formazioa:	R		O	x	A	X	(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:					
Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa	X	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	X
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak ARRETA mantentzea ezinbestekoa dela ikustea.

JARDUERA :

Ikasleak borobil batean bilduko dira eta bakoitzari fitxa bat entregatuko zaio hitz batekin. Hezitzaileak ipui bat irakurriko die ikasleei non ikasle bakoitzak bere fitxaren hitza entzutean hitz hori daukaten ikasleen artean lekuz aldatuko dira. Horrez gain, hitz gako bat egongo da, non ipuinean hitz hori agertzen denean ikasle guztiak leku bat eskubitara mugitu beharko dira. Hezitzaileak ipuina irakurtzean presioa sartuko du ikasleak urduri jartzeko.
Bukatzeko, ikasle baten arreta maila neurtuko dela esango zaie, regla batekin.

BALIABIDEAK:

- Ipuina eta fitxak
- Regla

4. JARDUERA

IZENBURUA :	AUTOBUSEAN NOLA JOAN

Formazioa:	R	X	O		A		(C)		Iraupena:	25´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia	X	Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Partehartzailea jabe dadila autobuseko joan-etorrietan bere gain har ditzakeen arriskuez eta arrisku horiek balora ditzala.

JARDUERA :

Ahoz azaltzen da autobusean eta trenean goazenean nola jardun behar den, eta parte hartzaileak nolako arrisku egoerak jasan ditzakeen.

Gero egoerak aztertzen dira, parte hartzaileak jakin dezan eta jabe dadin garraio publikoan bidaiatzerakoan mugak non dauden, eta segurtasun maila ona mantentzen jakin dezan.

BALIABIDEAK:

- Arbela

5. JARDUERA

IZENBURUA :	Non dago muga?

Formazioa:	R	X	O	x	A		(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:					
Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa	x	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA:

Neure segurtasunaren muga esperimentatzea, eta horrek berekin dakarren arriskuari loturiko emozioak bizitzea.

JARDUERA :

Jolas tradizionala da, eta haurrek ezagutuko dute. Hamabost bat lagunek jolastuko dute eta gainerakoek, jolasa behatuko. Gero, hezitzaielak egingo dizkien galderei erantzun beharko diete.
Bi talde egingo dira, eta talde bakoitzak zazpi parte-hartzaile izango ditu. Parte-hartzaileak lerroan jarriko dira, talde bat bestearen aurrez aurre (zazpi parte-hartzaile aukeratzen dira, normalean, jolasa gelan egiten bada, ez delako parte-hartzaile gehiago sartzeko tokirik izaten).
Bi taldeetako pertsona bakoitzari 1 eta 7 arteko zenbaki bat jarriko zaio. Beste pertsona bat bi lerroen erdian jarriko da, eta zapiari eutsiko dio.
Zapiari eusten dion haurrak zenbaki bat esaten duenean, bi taldeetako zenbaki hori duten pertsonak aldi berean mugituko dira.
Bi pertsonak zapira hurbilduko dira, baina zelai erdiaren muga-mugan geratuko dira, bakoitza bere aldean. Helburua zapia hartzea da, baina segurtasun-muga gainditu gabe. Parte-hartzaileetako batek zapia hartu aurretik muga zapaltzen badu, tantoa beste taldearentzat izango da.
Pertsona batek zapia hartzen duenean, besteak atzetik jarraitu ahalko dio, zapia hartu duena etxera iristen den arte. Baldin atzetik doakionak harrapatzen badu, tantoa harrapatzailearen taldearentzat izango da. Baina baldin zapia hartu duenak etxeraino eramaten badu eta atzetik doakionak harrapatzen ez badu, berarentzat izango da tantoa.

Berriz biribilean jarri gabe, hezitzaileak jolasaren lehenengo azterketa egin dezaten proposatuko du. Ea nork irabazi duen eta irabazteko zein estrategia erabili duten galdetuko die.
Halaber, jolasean aldaketa bat egitea proposatuko du; aurrerantzean, «zaurituak» eta «hildakoak» bereizi beharko dira. Harrapatuak «zaurituak» izango dira; baina muga (zelai erdikoa zein beste taldearen etxekoa) zapaldu edo zeharkatzen dutenak «hildakoak» izango dira. Baldin gure taldeko pertsona batek hartzen badu zapia eta onik iristen bada etxera, «zauritu» bat «senda» dezake, eta zaurituak berriz jolastu ahalko du, horrela.
Horri esker, parte-hartzaileek arriskuaren are sentipen handiagoa «bizi» ahal izango dute, eta arrisku txikiagoa hartu beharko dute, gero «sendatu» nahi badute.
Hezitzaileak aldaketa horri buruz hitz egingo du taldearekin, eta jolasa egin eta gero ea lehen egindako ohartarazpena hauteman duten ala ez egiaztatuko du.

BALIABIDEAK:

- Zapia
- Zinta itsaskorra

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

6. JARDUERA

IZENBURUA :	Nire ardura ere bada

Formazioa:	R	X	O	x	A		(C)		Iraupena:	30 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:					
Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa	x	Simulazioa	x
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA:

Segurtasun pasiboko gailua eraginkorra izan dadin, gailua bidaiariaren neurrira estuki lotu behar dela ohartzea.

JARDUERA :

Ibilbide bat egin behar da, soka batekin. Soka lurrean jarri eta irudiak egin behar dira; edo, besterik gabe, suge baten antzera sigi-saga doan ibilbide bat. Txandaka, partehartzaile talde batek ibilbidea egin beharko du, uneoro soka zapalduz eta baso bat ur goraino beteta eskuan duela. Baldin ura erortzen bazaie edo soka zapaltzen ez badute, berriz hasi beharko dute ibilbidea. Nahi izanez gero, hezitzaileak ibilbidea egiten behar duten denbora kronometra dezake, jolasean presio handiagoa jartzeko. Uraren ordez pilota bat erabil daiteke (ping pongeko edo teniseko piloten neurrikoa), eta eskugainean eraman, oreka mantenduz.

I. aldia: Parte-hartzaile bakoitzak ibilbidea egin dezake, soilik orain arte aipatutako zailtasunekin.

II. aldia: jolasa zailago egingo du hezitzaileak; horretarako, parte-hartzaile bakoitzari zapata-pare oso handia jarriko dio oinetan, bai eta paperezko txapel handi-handia ere buruan, ibilbidea ikusten ez uzteko modukoa.

III. aldia: jolasa berriz zailduko da, baina alderantziz, oraingoan; parte-hartzaileek ibilbidea egin beharko dute oso zapata txikiak jantzita, eta txapel txiki-txikia buruan. Txapela behin eta berriz eroriko zaie eta, beraz, ezin izango dute ibilbidea behar bezala egin. Ibilbideak egiteko parte-hartzaile bakoitzak behar izan duen denbora alderatuko du hezitzaileak (denbora-alde handiak izango dira), eta saiatuko

da haurrek «zapatak eta txapelak» autoko haurrak eusteko gailuekin eta motozikletaz eta bizikletaz ibiltzeko kaskoarekin aldera ditzaten.
Azkenean, ondorioztatu beharko dute haurrak eusteko gailu bakoitza behar bezala lotu behar zaiola bidaiariari, bere neurriaren arabera, ondo funtziona dezan.

BALIABIDEAK:

- Soka
- Raketa eta pelota
- Kapela handia eta txikia
- Zapata handiak eta txikiak
- Kronometroa

7. JARDUERA

IZENBURUA :	Non dago muga?

Formazioa:	R	X	O	x	A		(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	x
Elkarrizketa gidatua		Jokoa	x	Simulazioa	x
Eztabaida	x	Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA:

Bide-egoeratan emozioak identifikatzea

JARDUERA :

Landuko ditugun 7 emozioak aurkeztuko ditugu:
- Poza (alegria)
- Amorrua – Haserrea (rabia)
- Harridura – Ustekabea – Sorpresa (sorpresa)
- Beldurra – ikara (miedo)
- Gutxiespena (menosprecio)
- Nazka (asco)
- Tristura (tristeza)

Ikasle batek emozio bat antzezten saiatuko da aurpegiarekin, ezingo du ez hitz egin, ez mugitu eta ezta keinurik egin. Bakarrik aurpegi-adierazpen baten bidez antzeztuko du. Asmatzen duen ikasleak arduratuko da hurrengo emozioa antzezten, 7 emozioak antzeztu arte.

Joko bat aurkeztuko dugu, 4-5 ikasleen taldeak antolatuta, puntuaziorik eta konpetentziarik gabe. 28 argazkia aurkeztuko dira proiektorean eta identifikatu beharko dituzte aurrez landutako 7 emozioak.

Taldeka jarraituko dugu, eta, hala, bakoitzak bere bizilekuaren eta ikastetxearen artean egunero egiten duen edozein desplazamendutan oinarritutako bide-egoera komun bat deskribatu beharko du, gutxienez 7 emozioetatik 3 bertan daudela.

Bukaeran antzezlana:
1- Aiton amonek bidegorrian zer sentitzen duzue hasieran?
- Haserrea, ze egiten duzue nire bidean?
2- Gero aurreratu eta makilarekin mehatxatzen digute.
- Aitonak zer sentituko du? Amorrua!
-Guk? Beldurra!
3- Autoan noa eta zuek bizikletan oztopatzen?
- Niretzako oztopoa, beraz haserretu! Gerturatu egiten naiz eta bizikletakoek? Beldurra!
4-Gune partekatua, ni eta umea... Zein da handiena? Ni ezta? abusatzen dut bultzaka etab. Zer sortzen ari naiz?
Orain umea makila hartu eskutan eta oztopatu egiten du ume handia, zein da ahulena? Zer aldatu da?
Hori ez duzue zuek egiten bizikletarekin? Patinetearekin?

BALIABIDEAK:

- Pendrive, Power Point emozioekin.
- Egurrezko porra.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

L . H . H . (3. maila)











Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus





Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

PRAKTIKA (3. maila)









Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*











Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*











Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Hernaniko Udala

BIDE HEZIKETA
HERNANI

L . H . H . (4. maila)













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus





Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

PRAKTIKA (4.maila)





















Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*














Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*









HIRUGARREN

ZIKLOA

≈

Programazioaren izenburua:

GIDARIA

Hartzaileak:

11-12 Urte

Egoeraren azterketa:

Ez dira jabetzen, autonomia handiago dutenez, dagoeneko ibilgailu baten gidari direla, eta horretarako beharrezkoa dela ingurua eta arauak ezagutzea. Ez dira jabetzen, halaber, arriskua handitzen dela beren ohiko jokabideak aldatzen ez badituzte eta taldearen eragina erraz jasa dezaketela.

Konpetentziak:

	3 - 8	8 – 14	14 - 25	HELDUAK	ADINDUAK
Arreta		X			
Zaurgarritasun eta arriskuaren kontzientzia		X			
Inguruaren azterketa		X			
Taldeko presioarekiko erresistentzia		X			
Egokitzapena eta malgutasuna					
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					
Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea					

Programazioaren helburu orokorra:

Parte-hartzaileak identifika ditzala zein diren arriskua areagotzea ekar dezaketen norbere eta inguruaren egoerak eta aldaketak.

Egilea:

Aitor Portillo

Izenburua: Gidaria naiz

–

DENBORA GUZTIRA: 120 ´ **HARTZAILEAK:** 11- 12 Urte

HELBURUAK	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	NON	D.	D.G.
Jardueraren aurkezpena eta sarrera	Hezitzailearen eta jardueraren aurkezpena egiten da Aulkiak ondo jartzen dira eta ikasleen izenak jartzeko etiketak banatzen dira.	Gelan	10′	10′
"R" FASEA				60 ´
Parte-hartzaileak gai hauei buruzko hausnarketa egin dezala: bizikleta ibilgailu gisa, arauak eta aldatzen joaten den ingurua.	Galde-sorta bat banatzen da, bizikletarekin lotutako heziketa beharrak ikusteko. Gero erantzunak eztabaidatzen dira.		30 ´	

Parte-hartzailea jabe dadila taldeak zer nolako eragina duen norberak erabakiak hartzeko orduan.	Galde-sorta/eskala bat banatzen zaie. Eskala horren arabera adierazi behar dute non kokatzen diren eguneroko bizitzan gertatu ohi diren egoeren aurrean.		20 ´	
" O "FASEA				95 ´
Parte-hartzailea jabe dadila arauak beharrezkoak direla bide-segurtasuna areagotzeko.	Arbelean borobil bat marrazten da. Ikasleei esaten zaien marraztutako zati bat har dezatela. Gero guztien artean arau batzuk proposatzen dira.		20 ´	
Parte-hartzaileak txirrindulariaren arreta eta abiadura erlaziona ditzala.	Korridorea: joko bat proposatzen da, arreta falta eta abiadura erlazionatzeko. Gelaren barruan aldaketa progresiboak egiten dira.		15 ´	
" A "FASEA				120 ´
Parte-hartzaileak azter ditzala jokabideak eta mugikortasun seguruarekin bateragarriak diren jokabideak izan ditzala.	Ikasleei proposatzen zaie bizikletan ibiltzearekin lotutako aholku edo arau zerrenda bat egin dezatela.		25 ´	
BESTE SAIO BAT (Pista)				240 ´

Parte-hartzaileak bizi dezala ingurunean gertatzen diren aldaketetara egokitu beharra, eta azter ditzala bizikletan dabilenean jokabide ez seguruak izateko dituen arrazoiak	Parte-hartzaileek trafikoko parkean seinaleak jartzen dituzte. Hiru taldetan banatzen dira, kolore desberdinetako petoak jantzita. Batzuk oinezkoak dira, besteak gidariak eta besteek jokabideak aztertzen dituzte. Txandakatuz joaten dira. Jokabideak aztertzen dira, seguruenak aukeratzeko.		120 ´	

BIZIKLETAZ, ERABAIL EZAZU BURUA

EDUKIAK, GAITASUNAREN ARABERA: HARTZAILEAK: 11 – 12 Urte

INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK	TREBETASUNAK	BALIOAK ETA JARRERAK
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia **1. maila:** Intuizioz hautematen du berehalako arrisku propioa.		
- Arriskuaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa.	- Eguneroko mugikortasunekintzetan egon daitezkeen arrisku-egoerak aztertzea. - Istripua eta istripuaren ondorio larriak erlazionatzea. - Segurtasun pasiboko ohitura errazak erabiltzea.	- Autobabesa. - Autoezagutza: norberaren aukerei buruzko itxaropen errealak izatea.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

2. maila: Arrisku-egoerak balioztatzen ditu, ez norberak jasan dezakeen kaltearen arabera bakarrik, baita beste pertsonengan eragin dezakeen kaltearen arabera ere.		
Trafikoa elementu ugariren elkarrekintza hartzen duen sistema gisa. - Segurtasun pasiboko sistemei buruzko informazioak.	- Norberaren ohiturak identifikatzen eta bere zein besteen segurtasunaren alde egiten dutenak egiten ez dutenetatik bereiztea. - Segurtasun pasiboko sistemak behar bezala erabiltzea.	- Norberaren zaurgarritasuna onartzea. - Norberaren egintzekiko erantzukizuna. - Beste pertsonekiko eta horien osotasunarekiko aitortza, enpatia eta begirunea.
Ingurunearen azterketa **1. maila:** Hurbileko inguruneak ematen dizkion informazioak biltzen ditu eta egoera horri lotutako portaera segurua hautatzen du.		
- Alde segurua / ez segurua oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren oinarrizko kontzeptua. - Segurtasun pasiboaren berariazko elementuei buruzko informazioa.	- Espazio seguruak eta ez seguruak bereiztea. - Segurtasun pasiboko ohitura errazak erabiltzea.	- Behaketa: adi egotea. - Autobabesa. - Arauak errespetatzea

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

2. maila: Bide-ingurunea aztertzen du, elementu ezberdinak aintzat hartuz, eta aukera ezberdinen artean erabakitzeko gai da, bere buruaren segurtasuna balioetsiz.		
- Alde segurua / ez segurua kontzeptua. - Araua pertsona arteko akordio eta jarraitu beharreko irizpide gisa. - Bideko segurtasun-gabezian eragina duten elementuak		- Errespetua. - Autonomia. - Zuhurtzia. - Araua adostasun sozial gisa onartzea.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

Neuk aukeratzen dut

EDUKIAK, GAITASUNAREN ARABERA: HARTZAILEAK: 11 – 12 Urte

INFORMAZIOAK ETA KONTZEPTUAK	TREBETASUNAK	BALIOAK ETA JARRERAK
Taldeko presioarekiko erresistentzia **1. maila:** Konturatzen da noiz dagoen taldeko presio edo presio afektibo baten pean, eta arriskuzko bide-portaera batekin erlazionatzeko gai da.		
- Egoera emozionalak. - Gizarte-presioaren oinarrizko kontzeptua. - Presio-egoerak trafikoaren arloan.	- Egoera emozionalak identifikatzea (errua, beldurra, abandonua, errefusa...). - Taldearen presioa antzematea.	- Koherentzia: norbera dena izatea, irizpide propioa izatea. - Autobabesa.
2. maila: Badaki eta onartzen du taldearen eragina bizipen komuna dela gizaki ororentzat, eta hori negoziatu egin daitekeela.		
- Barruko kontraesana tentsio gisa. - Ezinegona adierazi beharra ondo sentitzeko	- Bere emozioak eta desioak adieraztea. - Norberaren ikuspegia ulertzea. - Besteen ikuspegia ulertzea.	- Koherentzia: norbera dena izatea, irizpide propioa izatea. - Autobabesa. - Zinezkotasuna. - Autokontzientzia: portaeraren automatismoa hautsi behar da, «egiten dudana zergatik egiten dudan» ulertzeko.

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

<table>
<tr><td colspan="3">Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

2. maila: Ondo ulertzen ditu bere barruko egoerak eta egoera emozionalak, eta baita horiek ekar dezaketen arriskua ere.</td></tr>
<tr><td>- Egoera emozional kontrolatu gabeak eta horien ondorioak.</td><td>- Egoera emozionalen arrazoiak hautematea.

- Bere sentsazio fisikoak eta emozionalak bide-arriskuko egoerekin erlazionatzea.</td><td>- Autoezagutza.

- Autobabesa.</td></tr>
</table>

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

1. JARDUERA

IZENBURUA :	**TXIRRINDA.....IBILGAILUA ?**

Formazioa:	R	x	O		A		(C)		Iraupena:	30 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	x
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa		Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak gai hauei buruzko hausnarketa egin dezala: bizikleta ibilgailu gisa, arauak eta ingurua.

JARDUERA :

Galde-sorta bat banatzen da. Galdera bakoitzerako hiru erantzun proposatzen dira, baina bakarra da erantzun zuzena.
Galderak bizikleta gidatzerakoan jakin beharrekoak diren zenbait arauri buruzko ezagutza maila jakiteko daude pentsatuak. Badira, bestalde, inguruarekin eta parte-hartzaileek arriskuaz duten pertzepzioari buruzko galderak ere.
Gero elkarrizketa gidatu baten bidez erantzun guztiekin bateratze lana egiten da.

BALIABIDEAK:

- Galderak
- Boligrafoak

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

2. JARDUERA

IZENBURUA :	Asma ezazu nor den liderra

Formazioa:	R	x	O		A		(C)		Iraupena:	20 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida	x	Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua		Jokoa	x	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Eragina kontzeptua eta beste pertsonengan eragiteko oinarrizko mekanismoak identifikatzea.

JARDUERA :

Pertsona bat ikasgelatik irtengo da. Gainerako ikasleek lider bat aukeratuko dute. Jarraian jolasean hasiko dira:
- Kanpoan dagoen ikaslea ikasgelara sartuko da. Gainerako ikasleak biribilean jarriko dira, eta kanpoan egon den ikaslea biribilaren erdian jarriko da.
- Taldeko ikasle guztiek liderrak erabakiko duen mugimendua egingo dute (adibidez: ezkerreko eskuarekin eskuineko ukalondoan hazka egin, burua eskuinetik ezkerrera mugitu, eta abar).
- Liderrak beste mugimendu bat egiten duenean, gainerako ikasleek hark egiten duena imitatuko dute.
- Taldea disimulatzen saiatuko da, kanpoan egon den pertsonak liderra nor den jakin ez dezan.
- Biribilaren erdian dagoenak arrertaz aztertuko du gainerakoek egiten dutena, eta hiru saiakera izango ditu liderra nor den asmatzeko.
- Hiru saiakera egiten dituenean beste pertsona bat irtengo da ikasgelatik.
- Jolasa hainbat aldiz egingo da.

Ondoren galdetzen zaie ikasleei:
- Zure ustez, jendeak gogoko du liderrari jarraitzea (modak)?
- Liderra duen talde baten bizitzan ere gertatzen al da?
- Zer gertatzen zaie liderrak esana egiten ez duten pertsonei?

BALIABIDEAK:

- Galderak

4. JARDUERA

IZENBURUA :	**IKUSI DUZU ?**

Formazioa:	R	O	A	(C)	Iraupena:
Ebaluaketa		X			15 ´

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	X	Jokoa	X	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak txirrindulariaren arreta eta abiadura erlaziona ditzala.

JARDUERA :

Bi parte-hartzaileri gelatik atera daitezela esaten zaie. Gainerako ikasleak bi lerrotan jartzen dira gelan, korridore bat osatzen dutela, eta kanpoan dauden parte-hartzaileek korridore horren barrutik pasa behar dute.
Gelaren barruan dauden ikasleei ondo ikusteko moduko elementu aski ikusgarriak ematen zaizkie.
Kanpoan dauden beste biei esaten zaie korridorean barrena pasa behar dutela.
Lehenengoak ziztu bizian egin behar du. Zer ikusi duen galdetuko zaio.
Bigarrenari gauza bera esaten zaio, baina poliki pasa behar du. Honi ere zer ikusi duen galdetuko zaio.
Bukatu ondoren, aldez aurretik arbelean jasota ditugun emaitza desberdinak eztabaidatzen dira, arretak abiadurarekin duen lotura ikusteko.

BALIABIDEAK:

- Zenbait gauza deigarri (Konoa, txanoa, etab.)
- Arbela, klariona

5. JARDUERA

IZENBURUA :	NIRE ERABAKIA DA

Formazioa:	R		O	X	A	X	(C)		Iraupena:	30 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	X
Elkarrizketa gidatua		Jokoa		Simulazioa	x
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Taldeko presioari aurre egitea zen zaila den bizi izatea.

JARDUERA :

Jarduaren helburua da parte-hartzaileak egoera jakin batean jartzea: taldeko presioari aurre egin beharko dioten egoeran.
Ariketak bi fase izango ditu eta horretarako hiru bolondres eskatuko dira. Hiru bolondresak gelatik aterako dira.
1- Banaka sartuko dira eta aulki batera igo beharko dira, beste aulki bat aurrez aurre jarriko zaio eta salto egin beharko du aulki batetik bestera. Aulki batetik bestera dagoen distantzia ikasle bakoitzak erabakiko du. Parte hartzen ez duten ikasleak ixilik egongo dira saioa aztertuz.
2- Hiru bolondresak batera egingo dute saioa. Hezitzailea saiatuko da presioa sartzen ikasleei aulkia geroz eta urrutiago eramateko. Ikasleek emozioa eta talde presioa kudeatu beharko dute. Bigarren fase honetan, beste ikasleek presioa sartzen saiatuko dira aulkia geroz eta urrutiago eramateko.

Helburua izango da ikasle bakoitza gogoeta egitea eta argi ikustea erabaki zuzena edo okerra beraiek hartu behar dutela eta ez dutela egin behar besteek nahi dutena talde presioarekin.

BALIABIDEAK:

-Aulkiak

6. JARDUERA

IZENBURUA :	**BIZIKLETAZ, ERABIL EZAZU BURUA**

Formazioa:	R		O	X	A	X	(C)		Iraupena:	30 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	x	Jokoa	x	Simulazioa	
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Seguru izateko, geure burua babestu behar dugula ohartzea.

JARDUERA :

Lau laguneko bi talde hautatuko dira. Talde bakoitzeko hiru lagunek hirukia osatuko dute, honekin batera doan eskemari jarraikiz. Pertsonen artean 3 edo 4 metroko tartea izan behar da. Tarte hori egokia da objektu bat elkarri eman diezaioten, baina errore-marjina batekin.

Talde bakoitzaren helburua da taldekideek objektu bat elkarri ematea, baina objektua ez da lurrera erori behar. Objektua arrautza egosia izango da. Beraz, talde bakoitzari arrautza egosi bat emango zaio. Talde bateko arrautza burbuladun plastikoz bilduta izango da. Beste taldearen arrautzak ez du inolako babesik izango.

Talde bakoitzeko laugarren pertsona leku egokian jarriko da, beste taldearen arrautza hegan doanean harrapatzeko. Talde bakoitzean, ondo egindako arrautza-jaurtiketak zenbatuko dira, bai eta arrautza zenbat aldiz erori denlurrera ere.

Jolasa bukatzen denean, arrautzari plastikozko babes-bilgarria kenduko zaio, eta bi arrautzak nola dauden aztertuko da. Jarraian, parte-hartzaileek hitz egiteko txanda hasiko da.

BALIABIDEAK:

-Arrautza egosiak, 4.
-Burbuiladun plastikoa.

JARDUERAREN FITXA (beste saio bat)

IZENBURUA : **BIZIKLETAZ**

Formazioa:	R	X	O	X	A	X	(C)		Iraupena:	120 ´
Ebaluaketa										

Metodoa:

Gertaera		Talde eztabaida		Galdetegia / eskala	
Elkarrizketa klinikoa		Ariketa analogikoa		Rol jokoa	
Elkarrizketa gidatua	X	Jokoa		Simulazioa	X
Eztabaida		Kontzeptu mapa		Antzezlana	
Erakustaldia		Phillips 6.6		Talde txikia	
Arazoa		Ideia jasa			

HELBURUA :

Parte-hartzaileak bizi dezala ingurunean gertatzen diren aldaketetara egokitu beharra, eta azter ditzala bizikletan dabilenean jokabide ez seguruak izateko dituen arrazoiak.

JARDUERAREN GARAPENA :

Pistan seinale batzuk dauzkagu. Parte-hartzaileek seinale horiek dagokien lekuan jarri behar dituzte, zirkuitua markatua dagoena kontuan hartuta, zirkuituan barrena ibiltzerakoan arazorik ez izateko.
Gela hiru taldetan banatzen da. Talde bakoitzari kolore desberdin bateko petoa banatzen zaio.
Talde bati oinezkoen papera ematen zaio, besteari bizikleta gidariarena eta besteari, berriz, eskala bat ematen zaio gidariek egindako gauza okerrak jasotzeko.
Aldi berean, gidariek ikusi beharko dute ea oinezkoek zenbait gaizki egiten ote duten.
Taldeak txandakatuz joango dira, gelakide guztiek hiru faseetan parte har dezaten.
Gero bateratze-lana egiten da denen artean, eta lehen ebaluatutako jokabideak aztertzen dira.
Guztien arteak ikusitako jokabide okerrak aztertzen dira, eta bizikletan ibiltzerakoan jokabide ez seguruak izateko arrazoiak aztertzen dira.

BALIABIDEAK:

- Bizikletak, kaskoak, koloretako petoak
- Orriak, jokabide ez seguruak jasotzeko fitxak.

L . H . H . (5. maila)











Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901- Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.net







HIRUGARREN ZIKLOA (6. maila)















BIDE HEZIKETAKO IKASTAROAREN EBALUAZIOA

UDALTZAINAK:

0: Guztiz desegokia 5: Guztiz egokia

1	Udaltzainen jarrera nolakoa izan da	0	1	2	3	4	5

0: Oso nahasiak 5: Oso argiak

2	Azalpenak nolakoak izan dira	0	1	2	3	4	5

IRAKATSITAKO GAIAK ETA BANATUTAKO MATERIALA:

0: Guztiz desegokia 5: Guztiz egokia

1	Nolakoak izan dira gaiak	0	1	2	3	4	5
2	Nolakoa izan da materiala	0	1	2	3	4	5

BALORAZIO OROKORRA

Baloratu 0tik 5era gai hauek

1	Partaideen esperientzian oinarritu dira	0	1	2	3	4	5
2	Eredu praktikoak erabili dituzte	0	1	2	3	4	5
3	Entzuleen arreta lortu dute	0	1	2	3	4	5
4	Parte hartu nahi zuenari aukera eman diote	0	1	2	3	4	5
5	Partaideen egoerara egokitu dituzte saioak	0	1	2	3	4	5
6	Ahotsaren erritmoa eta tonu egokiak erabili dituzte	0	1	2	3	4	5
7	Erabilitako hizkuntza egokia izan da	0	1	2	3	4	5
8	Eman duten Informazioa egokia izan da	0	1	2	3	4	5
9	Taldea bere helburuetara zuzentzen jakin izan dute	0	1	2	3	4	5


AZALPEN OROKORRAK ETA HURRENGOETARAKO IRADOKIZUNAK:

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

PRAKTIKAREN

ZIRKUITOA

≈



Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248900 – Mugikorra: 695783209 bideheziketa@hernani.eus

PRAKTIKAK FRONTOIAN













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*







Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

HIRUGARREN ZIKLOA (6. maila zirkuitoa)














Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

Ikasleen gaitasunak ebaluatu daitezke irakasleak diseinatutako test hau erabiliz. Pauwels (Leuvengo Unibertsitatea, Belgika).

Parte-hartzaile bakoitzaren ibilbidea kronometratu egiten da. 10-12 urteko pertsona batek ibilbidea 75 segundotan egiteko aukera izan behar du, zigorrak barne. Detektatutako akats bakoitza bost segundo dira (oina lurrean jarri, kono bat etzatea, ibilbidea desbideratzea, besoa erabat ez luzatzea, atzera begiratzean zenbakia ez ikustea).

Ez da karrera bat, motrizitate-test bat baizik. Test horrek aukera ematen du zentzuzko denbora, kalean behar bezala gidatzeko behar dituen informazio guztiak.


Pauwelsen testaren ebaluazioa:

- 45 segundo baino gutxiago: Bikain
- 46 eta 74 segundo artean: Ongi
- 75 segundo baino gehiago: Ez nahiko

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

PAUWELSEN TESTA


Test de Pauwels



Fuente: Profesor Pauwels, KULeuven, Rouler à vélo en toute sécurité, Les Assurances Populaires, 1998 (documentogratuito)

HIRUGARREN ZIKLOA (6. maila zirkuitoa argazkiak)














Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*














Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*
















Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*













Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*

HIRUGARREN ZIKLOA (6. maila)



L.H.- 6. A



L.H.- 6. B

Agustindarren plaza 6 – Tel. 943 248900 – Fax 943 248901 – Mugikorra: 695783209 *bideheziketa@hernani.eus*


Aritzmendi
127 m
SUUNTO
SAGASTIALDE
Lidl
Ciclismo
18/11/2025, 9:23
Velocidad 22,3 km/h
Hernani
0,0 km/h
35'11.3
Duración
6,48 km
Distancia
11,1 km/h
Velocidad med.
© Mapbox / OpenStreetMap

L.H.- 6. C

BIDE HEZIKETAKO UDALTZAINEK EGINDAKO BALORAZIOA

GAIAK:

Landutako gaiak interesgarriak izan direla deritzogu, aproposak adin honetarako eta ikasleen egunerokotasunarekin zerikusi handia dutenak. Bide heziketa programaren helburuetako bat izan da egoera desberdinak ulertzea eta horiei aurre egiteko, laguntza eskaintzea, autonomia sendotzeko. Ahaztu gabe arretaren garrantziaz, adin hauetan erraz galtzen dutelako.

Praktikak, zeresanik ez, jarrerak eta portaerak neurtuz, arreta maila igotzeko asmoarekin, osagarri aberatsa dela azpimarratu nahi dugu, oinezko eta bidaiari figurak lantzen ditugunean espaloitik eta garraio publikoa erabiltzen dugunean errespetua oinarri hartuta. Frontoian egindako ekintzarekin , bertan gidariaren figura landu ondoren, elkarrizketa gidatuak hausnarketa pertsonalizatua egiteko aukera izatea oso interesgarria dela iruditzen zaigu. Aipatzekoa da ere atletismo pistan egindako saioa, bertan ikaslearen trebezia bizikletaren gainean neurtzen dugulako.

IKASLEAK:

Ikasleen parte hartzea erabatekoa izan da, inplikazioa eta esperientziak edo pasadizoak era naturalean azalduz, benetan jarrera ona izan dute, motibatuta egon dira eta emandako gaiak arretaz jarraitu dituzte.

Harrera eta eskainitako laguntza aipatzekoa da, eta horrela jarraitzea espero dugu

METODOLOGÍA:

Partaidetza ahalik eta handiena bultzatzen duten metodologia aktiboak erabiltzen saiatu gara; horretarako, jolasak, simulazioak, ariketa desberdinak, joko kooperatiboak, dilemak eta abar. Haurren beharretatik abiatuta, pausoz pauso zentzuzko jokabideak eta portaerak sakonduz, prestakuntza areagotuz, dagokion garrantzia emanez, enpatia eta autonomia sustatu eta garatzeko asmoz. Ahaztu gabe errespetuaren zipriztinak mugikortasunaren barruan ezinbestekoak direla.

IRADOKIZUNAK:

Jasotako iradokizunei dagokien garrantzia eman eta hurrengo ikasturtean kontuan hartuko ditugu.

BIGARREN

HEZKUNTZA

≈

METODOLOGIA

Partaidetza ahalik eta handiena bultzatzen duten metodologia aktiboak erabiltzen saiatuko gara. Aukeratuko ditugun metodoen bidez parte hartzaileak aldez aurretik dituen ideien inguruan hausnartuko du eta prestakuntza areagotzeko aukera emango dioten perspektiba berriak esperimentatuko ditu, gero errealitatean aplikatzeko.

HELBURUAK

Parte-hartzailea kontura dadila arriskuaz duen pertzepzioa neurri handi batean bere arreta mailaren araberakoa dela.

Parte-hartzailea taldearekin harremanetan jartzea eta prestakuntza beharra daukala sumatzea, jokabideen gaitasuna neurtuta.

Parte-hartzailea kontura dadila arriskua subjektiboa dela.

Parte-hartzaileak arrisku egoerak esperimenta ditzala, ingurunearen zirkunstantziez jabe dadila eta arriskua murrizteko estrategia seguruak erabiltzeko gauza izan dadila.

EDUKIAK

1. zikloa

Galde-sortak, talde txikitan lan egitea, erakustaldiak, jokoak, elkarrizketa gidatuak, simulazioak.

2. zikloa

Galde-sortak/eskala, elkarrizketa gidatuak, jokoak, phillips 6.6., talde txikitan lan egitea.

SAIOAREN HELBURUA

OINEZKO, BIDAIARI ETA GIDARI DIREN NEURRIAN, HAUR , GAZTE ETA HELDUEN ISTRIPUAK GUTXITZEA.

PARTE HARTU DUTEN IKASTETXE ETA IKASTOLA

2025-2026 ikasturtean, Bide Heziketako programan parte hartu duten ikasteetxe eta ikastolen zerrenda honako hau izan da:

BIGARREN HEZKUNTZA

.- Aratz Ikastola
.- Institutua

HIZKUNTZA

2025-2026. urtean ikastetxeko eskakizunari jarraituz euskaraz eman dugunez , gure asmoa hurrengo urterako (2026-2027) euskaraz ematea da.

BIDE HEZIKETAKO IKASLE KOPURUA

2025-2026 ikasturtean, Bide Heziketako programan parte hartu duten ikasleen kopurua honako hau izan da:

ZIKLOA	MAILA	IKASLEAK
1.	1.	147.-
	2.	163.-
2.	3.	174.-
	4.	157.-
GUZTIRA		641.-

2025-2026 BIDE- HEZIKETAREN SAIOAK ETA IRAUPENA

ZIKLOAK	MAILA	1. SAIOA	PRAKTIKOA
1.	1.	120 MIN	90 MIN
	2.	120 MIN	90 MIN
2.	3.	120 MIN	
	4.	120 MIN	

2025-2026
IKASTURTEA

BIGARREN HEZKUNTZA

HERNANI INSTITUTUA (LEHEN ZIKLOA)

ORDUA	IRAILAK 23	ORDUA	IRAILAK 24
10:20 – 12:10	TEORIA D.B.H. 1. -A	**10:20-12:10**	TEORIA D.B.H 1. -B
12:30 - 14:20		**12:30 - 14:20**	TEORIA D.B.H. 1.-F

ORDUA	IRAILAK 25	ORDUA	IRAILAK 26
10:20 – 12:10	TEORIA D.B.H. 1. - D	**10:20 – 12:10**	TEORIA D.B.H. 1. - E
